



ONDARROAKO UDALA

KIROL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

Bilera-zenbakia: 2019/2
Eguna: 2019-07-10
Ordua: 19:00
Tokia: Udaletxeko 2. Pisuko batzar gela

Bertaratuak

Nagore Badiola, kirol batzordeburua
Adrian Ibarloza, E.A.J.ko zinegotzia
Ama Lur Bedialauneta, Arrigorri Itsas Arrantza Elkarteko ordezkaria
Eladino Gonzalez, Aurrera K.E. / C.D. Aurrerako ordezkaria
Mila Rodriguez, Udal kiroldegiko zuzendaria
Nerea Artola, Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria
Mikel Santiso
Jose Ramon Osa Etxaburu, idazkaria

Bertaratu ez direnak

Artibai Judo Taldeko ordezkaria
Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria
Asoc. Senegaleses Pueblao de Bassoul en Euskadiko ordezkaria
Aurrera Geuria Txirrindu Taldeko ordezkaria
Ondarru Igeri Taldeko ordezkaria
Tontorramendi Aurrera Mendi Taldeko ordezkaria
Egusentia Koop. E.ko ordezkaria
Koaxi Triatloi Taldeko ordezkaria
Eskilantxarri elkarteko ordezkaria
Orkatzen Peñako ordezkaria
Ondarroako Atletismo klubeko ordezkaria
Ondarroako Pala Taldeko ordezkaria
Ondarroako Urpeko Elkarteko ordezkaria

Aztergaiak

1. Kirol batzordeburuaren aurkezpena.
2. 2019ko apirilaren 10eko bilerako aktaren onespina, hala badagokio.
3. Gaurtik urte amaiera arteko ekintzak.
4. Eskaerak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak

1. **Kirol batzordeburuaren aurkezpena.**

Idazkariak azaldu du Nagore Badiola Alberdi dela batzordeburu berria.

2. **2019ko apirilaren 10eko bilerako aktaren onespina, hala badagokio.**

Aipatu akta onartu egin da aho batez.



ONDARROAKO UDALA

3. Gaurtik urte amaiera arteko ekintzak.

Gaurtik urte amaiera arte izango diren kirol ekintzak aipatu ditu idazkariak:

- Uztailak 13 – Igeri trabesia
- Uztailak 30 – Umeen estropada eta txokolatada
- Abuztuak 10 – Traineren estropadak (Eusko Tren Liga)
- Abuztuak 10 – Traineren estropadak (Eusko Label Liga)
- Abuztuak 11 – Traineren estropadak (ETE Liga)
- Abuztuak 10 – Aurrera K.E. – Santurtzi futbol partidua
- Abuztuak 15 – Esku pilota partidua
- Abuztuak 16 – Herri Kirolak
- Irailak 28 – Umeen Arrantza Lehiaketa
- Irailak 28 – Ondarroa-Lekeitio lasterketa

Kirol batzordeburuak esan du maiatzaren 10ean izango dela 2016ko kirol sariak emateko Kirol Gala.

Galako gastuei aurre egiteko dirurik ez dela egon aurreko urteetan esan du eta horregatik berandutu egin dela ekitaldia.

4. Eskaerak eta galderak

Udal kiroldegiko zuzendariak esan du txantilo bat bete behar dutela kirol taldeek, Udal kiroldegiko instalazio ezberdinak erabili ahal izateko, eta ahal denik arinen txantiloak bete eta aurkezteko eskatu dio kirol taldeen ordezkariari. Horrela, abuztuak eskaerak aztertuko luketela eta irailean instalazioak erabiltzen hasi ahalko direla.

Aurrera K.E.ko ordezkariak hiru gai mahairatu du:

- Aldagelen gaia.
- Futbol zelaia “repobla” egin behar dela eta hainbat arinen egin behar dela esan du. Luis Mari aparejadorea jakinaren gain dagoela.
- Aurrera K.E.ren jarduera ekonomikoki mantentzeko, dirulaguntzaren ordezkariarekin, hitzarmen bat nahi duela egin Udalarekin.

Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkariak esan du Arraun Egoitzako fatxada txarto dagoela eta konpondu egin behar dela. Euren elkarteko presidentek fatxadako argazkiak bidali dituela Udaletxera.

Ondoren batzarra amaitutzat eman du batzordeburuak.

Jose Ramon Osa Etxaburu
Idazkaria



O.e.
Nagore Badiola Alberdi
Kirol batzordeburua